

# MIKEL LABOARIA

EUSKALDUNON  
**Egunkaria**

GEHIGARRI BEREZIA

Igandea, 1995eko martxoaren 5a

## Viking

*Mikel Laboari, omenez*

Bere begiak distiratsuak dira, urdin urdinak  
Eta hala dirudi, guk kalean ikusten diogun  
Bere gorputz apur bat makurtu horren barruan,  
Viking bat bizi dela gordeta, viking begi urdin bat,  
Urdintasun horregatik ez balitz ikustezin litzaigukeena;

Viking bat ifarraldeko lur hotz eta bakartietan jaioa,  
Viking bat itxasoz itxaso oihuka eta harrapaketan ibili zena,  
Viking bat gerlari britaniarren aurrean ezpata astindu zuena,  
Viking bat ikararik gabea, viking bat arrano baten jabe,  
Viking bat izarrei begiratzen ziena kantatzen hasi aurretik.

**Bernardo Atxaga**



XOUSE SIMAL

## Badator korrika



Lasterketari ekiteko 12 egun falta diren arren, ez da txikia bederatzigarren Korrikak hartu duen abiadura. Kultur Korrikaren burruna bazter baten eta bestean hedatzen ari da egunotan eta karteiko irudian bezala milaka lagun hasia da zapatilak prestatzen. Atzo Korrikak beste urrats bat eman zuen Mikel Laboaren bizitza, kantuak eta zazpi idazleren ekar-

penak biltzen dituen liburua aurkeztuz. Euskararen festarako prest, Bilbon izan ziren Mikel Labo bera, urteetan bidelagun izan duen Marisol Bastida, Iñaki Salvador, Zumeta eta beste ehun bat adiskide gehiago. Jose Antonio Arana Martijak, Euskaltzaindiaren izenean, ez zuen aukera galdu nahi izan Korrikaren aldeko kanpai hotzak lau haizeetara zabaltzeko Donibane-Garazitik Gasteiza, topa euskararen alde!